DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala
## Consejo Sectorial de Memoria Histórica

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2021ko otsailaren 23a**/ 23 de febrero de 2021<br>**Udaletxeko Pleno aretoa /** Salón de Plenos del Ayuntamiento<br>**18:00etan** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **19:30ean /** A las 19:30 horas |

12356n I

**GAI-ZERRRENDA:**
ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1.- Aurreko saioaren akta onartzea. | 1.- Aprobación del acta anterior. |
| 2.- 2020ko gastu eta ekimenen laburpena. | 2.- Resumen de actividades y gastos 2020. |
| 3.- Oroimen Historikoaren inguruko ekimenak 2021. | 3.- Actividades en torno a la Memoria Histórica 2021. |
| 4.- Instrukzio- epaitegietan egozgarriak diren udal-kasuak aztertzeko lantaldearen egoera. | 4.- Situación del grupo de trabajo de análisis de los casos municipales imputables en los juzgados de instrucción. |
| 5.- Memoria Demokratikoaren lege aurreproiektuaren balorazio batzordea. | 5.- Comisión de valoración del anteproyecto de Ley de Memoria Democrática. |
| 6.- 2021eko Kontseiluaren egutegia. | 6.- Calendario del Consejo del 2021. |
| 7.- Bestelakoak, eskariak eta galderak. | 7.- Varios, ruegos y preguntas. |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Alkatea**<br>Alcalde |
| **GIZA ESKUBIDEETAKO ZINEGOTZI ESKUORDEDUNA**<br>CONCEJALA DELEGADA DE DERECHOS CIVILES | |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | **1. EAJ-PNV**<br>**2. PP**<br>**3. ELKARREKIN PODEMOS**<br>**4. EH BILDU** |
| **KONTSEILUKO BOKALAK**<br>VOCALES DEL CONSEJO | **1. Altunaberri Kultur elkartea**<br>**2. EDE Fundazioa**<br>**3. Genozidioaren biktimen elkartea**<br>**4. LAB udal sail sindikala**<br>**5. Aranzadi**<br>**6. Miguel Aranburu asoc. de historiadores**<br>**7. Goldatu**<br>**8. Ospe bereziko pertsona 2 / Persona de especial relevancia nº2** |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | **Lantxabe asoc. De vecinos**<br>**Euskal Memoria Fundazioa**<br>**Valentin de Foronda Institutoa**<br>**Hamaika Bide elkartea**<br>**1.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 1**<br>**2.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 2**<br>**Ospe bereziko pertsona 1/ Persona de especial relevancia nº1**<br>**Ospe bereziko pertsona 3/ Persona de especial relevancia nº3** |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Giza Eskubideen teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Derechos Humanos |
| | **Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzu burua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **16 OHKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzuburua, Giza Eskubideen atalburua eta Kontseiluko idazkaria.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = **4**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **12**<br><br>16 personas integrantes del CSMH, además del Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social y la secretaría del Consejo. |

## Saioaren bilakaera / Desarrollo de la sesión:

BATZORDEBURUAK bilkura hasitzat jo ondoren, honako GAI ZERRENDA lantzeari ekin diote:

**1.- Aurreko saioko akta onartzea.**

Akta onartutzat eman da. EDE Fundazioa abstenitu egin da, haren ordezkariak aurreko saioan parte hartu ez zuelako.

**2.- 2020ko gastu eta ekimenen laburpena.**

Arloko buruak 2020an egindako jardueren berri eman du:

- Ikastetxeentzako bisita gidatuak, "Memoriaren ibilbidea": bertan behera utzi behar izan ziren konfinamenduaren eta ikastetxeen itxieraren ondorioz, baina taldeak osatuta zeuden.
- Bisita antzeztuak: ezin izan ziren gauzatu murrizketen ondorioz.
- Donostiako Memoria Historikoaren Eguna: parte-hartzaile gutxirekin lore-eskaintza xumea egin zen, pilaketak saihesteko.
- "Urte haietan" eskulturaren seinaleztapena iaz jarri nahi zen, baina egoerak hobera egiten duenean jartzea erabaki da.
- DUAL eskulturan lau izen zuzentzeko plakak aldatzea: Antonio Valderrama Barrenechea eta Luis Sánchez Casasola izenak zuzendu egin dira, Jakob Gabb kendu da eta Angel Arizmendi Irastorza gehitu da.

Azaldu du, modu honetan, 2. kapitulutik 12.000 euro inguru gastatu direla jardueretan, eta 4. kapituluko diru-laguntzetatik, ia 30.000 euro.

**3.- Oroimen Historikoaren inguruko ekimenak 2021.**

Arloko buruak jakinarazi du aurten aurrekontua % 10 murriztu dela eta nahiz eta onartu gabe egon, egin nahi diren jarduerak azaltzen ditu:

- Ikastetxeentzako bisita gidatuak martxan jarri dira eta dagoeneko 22 taldek eman dute izena; helburua 40 taldetara iristea da, guztira mila ikasle ingurura.
- Bisita antzeztuak, egoerak uzten badu irailean egitea aurreikusten da 300 bat lagunentzako lekuekin.
- Irailaren 13a, Donostiako Memoria Historikoaren Egunerako, oraindik ezin da aurreikusi baldintzak baikorrak izango diren ekitaldi bateratu bat egiteko.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Aprobar el acta de la sesión anterior.**

Se da por aprobada el acta con la abstención de EDE Fundazioa, al no participar su representante en la sesión anterior.

**2.- Resumen de actividades y gastos 2020.**

El jefe del área da cuenta de las actividades llevadas a cabo en 2020:

- Visitas guiadas para los centros educativos, "Caminar por la Memoria": se tuvieron que suspender a causa del confinamiento y el cierre de los colegios, sin embargo los grupos estaban completos.
- Visitas teatralizadas: no se pudieron llevar a cabo a causa de las restricciones.
- Día de la Memoria Histórica de Donostia: se realizó una sencilla ofrenda floral con pocos participantes para evitar aglomeraciones.
- La señalización de la escultura "Urte haietan" se pretendía poner el año pasado pero se ha optado por hacerlo cuando la situación mejore.
- Cambio de placas al modificar cuatro nombres en la escultura DUAL: Antonio Valderrama Barrenechea y Luis Sánchez Casasola se han corregido, se elimina a Jakob Gabb y se incluye a Ángel Arizmendi Irastorza.

Explica que de esta manera se han gastado del capítulo-2 unos 12.000€ en actividades y del capítulo-4 de subvenciones, casi 30.000€.

**3.- Actividades en torno a la Memoria Histórica 2021.**

El jefe del área informa que este año el presupuesto se ha reducido un 10% y aunque aun está por aprobar, enumera las actividades que se pretenden realizar:

- Se han puesto en marcha las visitas guiadas con los centros educativos; se han apuntado 22 grupos, el objetivo es llegar a 40 grupos con un total de unos mil alumnos y alumnas.
-Realizar las visitas teatralizadas en setiembre, con plazas para unas 300 personas, si la situación lo permite.
- El 13 de setiembre, Día de la Memoria Histórica de Donostia, aun no se puede prever si las condiciones serán las optimas para realizar un acto conjunto.

- Hurrengo hilabeteetan BOUaren erreplika portuan jartzea espero da.
- Aieteko instalazioa, nazien kontzentrazio-esparruetara deportatutako donostiarren omenez, tramite baten zain dago egiten jarrai dezan.

Diru-laguntzei dagokienez, memoria historikoaren partidan igoera txiki bat egon dela jakinarazi da. Era berean, azaldu da Aranzadirekin 2017an hasitako proiektuari jarraipena emango zaiola, eta ikerketa-garaia 1959ra arte luzatuko dela; honekin batera, web gunearen mantentze lanak, herritarrentzako arreta bulegoa eta bibliografiak eta elkarrizketak egiten jarraituko dira. Horretarako, 2021ean 18.740 euroko diru-laguntza emango da.

Aranzadiko ordezkariak, 2020an gauzatutako proiektuari buruz, laburbilduta azaldu du webguneak 15.198 bisita izan dituela urtebetean, 120 kontsultari erantzun dietela telefonoz edo webgunearen formularioaren bidez, 8 elkarrizketa eta 40 biografia inguru egin direla. Iragarri du 2020ko urtarrilean 6791 biktima zituztela identifikatuta, eta gaur egun 7862 dira; hala, egiten ari diren jarraipenari esker, urtebetean 1071 biktima gehiago aurkitu dira.

**4.- Instrukzio- epaitegietan egozgarriak diren udal-kasuak aztertzeko lantaldearen egoera.**

Lehendakariordeak lan taldearen egoeraren inguruan azaltzen du, LAB Udal sail sindikaleko ordezkariak aurkeztutako dokumentu baten inguruan joan direla lana garatzen. Hasierako txostenetik 28 udal politikari eta langileren zerrenda, dudak-mudak, onartu da. Langile bakoitzaren espedientea ahalik eta zehatzen kontrastatzen ari direla azaltzen du. Dokumentazioa osatu ondoren txostena Kontseiluaren esku egongo dela gaineratzen du, gerora Kontseiluak, erabaki dezan zein urrats eman kereila ezartzeko.

LAB Udal sail sindikaleko ordezkariak, behin biktima bakoitzaren espedientea osatuta, planteatzen du segurtasun juridiko handiena izateko biktima bakoitzaren kategoria eta klasifikazioa onartzen duen txosten juridiko baten beharra. Lehendakariak azaltzen du espedienteak dituztenean eskaera Udal idazkariari egingo zaiola.

- Se espera la colocación en el puerto de la réplica del BOU en los próximos meses.
- La instalación de Aiete en homenaje a la y los deportados donostiarras a campos de concentración nazi está a la espera de un tramite para continuar con su ejecución.

En relación a las subvenciones, informa de que ha habido un ligero incremento en la partida de memoria histórica. Asimismo, explica que al proyecto iniciado con Aranzadi en 2017, se le va a dar continuidad con la ampliación de la época de análisis hasta 1959, junto con el mantenimiento de la página web, la oficina de atención ciudadana y la realización de bibliografías y entrevistas. Para ello, en 2021 se concede una subvención de 18.740€.

El representante de Aranzadi, sobre el proyecto llevado a cabo en 2020, informa de forma resumida que la página web en un año ha tenido 15.198 visitas, han atendido 120 consultas por teléfono o a través del formulario de la web, realizado 8 entrevistas y unas 40 biografías. Anuncia que en enero del 2020 tenían identificadas 6791 víctimas y a día de hoy son 7862, así gracias al seguimiento que se lleva a cabo con este proyecto en un año se han localizado 1071 víctimas más.

**4.- Situación del grupo de trabajo de análisis de los casos municipales imputables en los juzgados de instrucción.**

Sobre la situación del grupo de trabajo, el vicepresidente explica cómo han ido desarrollando el trabajo en torno a un documento presentado por el representante sindical municipal de LAB. Del informe inicial se ha aprobado la relación de 28 trabajadores y políticos municipales, con alguna reserva. También explica que se está contrastando lo más detalladamente posible el expediente de cada uno. Añade que una vez completada la documentación, el trabajo estará en manos del Consejo, para que posteriormente el Consejo decida qué pasos dar para establecer la querella.

El representante sindical municipal de LAB, una vez completado el expediente de cada víctima, plantea la necesidad de un informe jurídico que apruebe la categoría y clasificación de cada víctima para tener la máxima seguridad jurídica. El Presidente explica que cuando tengan los expedientes la solicitud se hará al Secretario Municipal.

Goldatuko ordezkariak galdetzen du zerrenda osatzeko zenbat denbora geratzen den. Aranzadiko ordezkariak erantzun du orain bakoitzaren espedientea osatzen ari direla, horrela kasu batzuk nahiko osatuak daudela dio, baina beste batzuk ez eta horien zain daude.

Ospe bereziko 2. pertsonak, azaldu du 28 kasuetatik, 8k dutela dokumentaziorik osatuta, beste 11 kasu dokumentalak direla eta gainerako 9etatik erreferentzia bibliografikoak baino ez dituztela. Beraz, adierazi du ez dagoela epe zehatzik, baina lana bideratuta dagoela, eta jarraitzeko ahalik eta segurtasun juridiko handiena lortzeko beharra azpimarratu du.

**5.- Memoria Demokratikoaren lege aurreproiektuaren balorazio batzordea.**

Arloko buruak argitu du lantalde honi ezin zaiola "Batzorde" izena eman, Kontseiluko erregelamenduan ez baita hala jasotzen. Ondoren, presidenteordeari eman dio hitza.

Lehendakariordeak azaldu duenez, lege aurreproiektua irakurri eta aztertu ondoren, parte hartzaile bakoitzak Udalaren memoria historikoaren arloko politiketan aipagarritzat jotzen dituen eta ekar ditzakeen xehetasunak jasotzen dituen testua aurkeztea adostu da. Gai garrantzitsuenen laburpena aipatu du agertu diren adostasunekin eta desadostasunekin. Gaineratu du azken bileraren ondoren Altunaberri elkarteko ordezkariak eta PP talde politikoko ordezkariak ez dutela talde honetan parte hartzen jarraituko.

Altunaberriko ordezkariak lantaldeari buruzko desadostasunak azaldu ditu. Bere ustez, asmoa ez zen lege aurreproiektua baloratzea, baizik eta memoria historikoaren inguruko udal politikak hobetzea, lege berri honetatik ondorioztatzen diren ekarpenekin. Lege horrek denbora muga batzuk izan behar dituela dio, gerra zibilekoak eta Amnistiaren Legearekiko, eta taldean hautsi egin direla. Adierazi du desadostasunak ez direla sortzen parte hartzaileek adierazteko eskubidea ez duelako onartzen, baizik eta bileretan azaldutako guztiarekin testu bateratu bat egingo nahi delako. Horregatik, adierazi du taldea utzi duela, ez baitu onartuko bere diskurtsoa bat ez datorren beste diskurtso batzuen barruan egotea.

La representante de Goldatu, pregunta cuánto tiempo queda para completar la lista. El representante de Aranzadi, responde que se encuentran completando el expediente de cada uno; así afirma que hay casos bastante completos, pero otros no y están pendientes de completar estos.

La persona de especial relevancia nº2, explica que de los 28 casos, 8 tienen la documentación completada, otros 11 casos tienen carácter documental y de los 9 restantes solo tienen referencias bibliográficas. Por lo tanto, afirma que no hay un plazo concreto pero que el trabajo está encauzado y subraya la necesidad de obtener la máxima seguridad jurídica para continuar.

**5.- Comisión de valoración del anteproyecto de Ley de Memoria Democrática.**

El jefe del área aclara que este grupo de trabajo no puede denominarse "Comisión", ya que no se recoge en el reglamento del Consejo como tal. A continuación cede la palabra al vicepresidente.

El vicepresidente explica que tras la lectura y análisis del anteproyecto de ley, se ha acordado que cada persona participante presente un texto que contenga los matices que considere relevantes y puedan aportar a las políticas en materia de memoria histórica del Ayuntamiento. Menciona resumidamente los temas más relevantes en los que se han visto concordancias y discrepancias. Agrega que tras la última reunión, el representante del Altunaberri y el representante del partido PP declinaron continuar participando en el presente grupo.

El representante de Altunaberri expone sus discrepancias sobre el grupo de trabajo. En su opinión la intención no era valorar el anteproyecto de ley sino mejorar la políticas municipales en torno a la memoria histórica con las aportaciones que se desprenden de esta nueva ley. Sostiene que esta ley debe tener unos límites temporales que son de la guerra civil a la Ley de Amnistía y, en el grupo son transgredidos. Afirma que las discrepancias no surgen por no reconocer el derecho a expresar de toda persona, sino por el hecho de que se pretende realizar un texto conjunto con todo lo expuesto en las reuniones. Por ello, declara que ha abandonado el grupo ya que no va a permitir que su discurso se encuentre incluido con otros que no comparte.

PPko ordezkaria adierazi du iritzi guztiak bilduko dituen adostasunik handiena bilatu nahi izan duela, baina sentitu du ez zaiola utzi bere ideiak eta gogoetak adierazten, eta, horren ondorioz, taldea utzi du.

El representante del partido PP afirma que lo que ha querido es buscar el mayor consenso donde se recojan todas las opiniones pero ha sentido que no se le ha permitido expresar sus ideas y reflexiones por lo que lo ha abandonado el grupo.

EAJ-PNVko ordezkariaren ustez, garrantzitsua da Imanol Telleriaren azalpena; izan ere lantalde bat denez, eta ez batzorde bat, ezin dute irizpenik egin ez baitute ez izaera juridikorik ez politikorik horretarako. Horrela, gaineratu du lantalde honen dokumentuak adostu gabeko iritzi desberdinak izan ditzake, denak kontuan hartzekoak.

El representante del partido EAJ-PNV, cree importante la aclaración de Imanol Telleria, ya que al ser un grupo de trabajo y no una comisión, no pueden elaborar dictámenes al no tener naturaleza jurídica ni política para ello. Así, añade que el documento del grupo de trabajo puede contener opiniones distintas no consensuadas a tener en cuenta.

Lehendakariordeak baieztatu du aholkularitza funtzioa duen lantaldea dela. Bere ustez, arazoa ideologia kontua da, eta hitzaren bidez baino ezin da konpondu.

El vicepresidente confirma que es un grupo de trabajo con función asesora. Opina que el problema es cuestión de ideología y que solo puede ser resuelta por medio de la palabra.

**6.- 2021eko Kontseiluaren egutegia.**

Lehendakariak 2021erako egindako egutegi proposamena onartu da: Batzorde iraunkorrak maiatzaren 20an eta irailaren 23an izango dira, eta Kontseiluaren osoko bilkurak ekainaren 9an eta urriaren 13an.

Ospe bereziko 2. pertsonak, bilerak telematikoki egiteko aukerari buruz galdetu du. Lehendakariak erantzun du, Udaleko idazkariaren irizpidearen arabera, Batzorde iraunkorrak telematikoki egin daitezke, baina ez Kontseiluko osoko bilkurak. Era berean, onartu du irizpide eztabaidagarria den arren, onartu egin behar dela.

**6.- Calendario del Consejo del 2021.**

Se aprueba la propuesta del calendario para el 2021 expuesta por el Presidente: las Comisiones Permanentes serán, el 20 de mayo y el 23 de setiembre y, los Plenarios del Consejo, el 9 junio y el 13 de octubre.

La persona de especial relevancia nº2, pregunta por la posibilidad de realizar las reuniones de forma telemática. El presidente responde que según el criterio del Secretario del Ayuntamiento, las Comisiones permanentes se pueden hacer de manera telemática pero no los plenarios de los Consejos. Asimismo, admite que aunque es un criterio controvertido se debe acatar.

**7.- Eskariak eta galderak.**

Atal buruak, Arana sendiak Udalari egindako eskaerari dagokionez (Polloeko hilobiko Jose Aranaren plaka desagertzeari buruzkoa), jakinarazi du familiak Kontseiluan aztertzeko eta salatzeko eskatzen duela. Lehendakariak erantzun du Udalak gertaera hori gaitzesteko, talde politikoek bultzatutako ekimen bat Udal gobernuan aurkeztu beharko dutela.

EHbilduko ordezkariak bi gai ditu. Alde batetik, Dual eskultura alde batetik hautsita dagoela jakinarazi du. Idazkaritzak erantzun du badutela horren berri, eta abisatu dutela konpontzeko eta era berean alde hori indartzeko, bigarren aldia baita apurtzen dutela. Bestalde, Larramendi eta Urbieta kaleen bidegurutzean zegoen

**7.- Ruegos y preguntas**

El jefe del área en relación a la solicitud recibida por parte de la familia Arana, sobre la desaparición de la placa de José Arana de la tumba en Polloe, informa que la familia solicita que se analice en el Consejo y se denuncie. El Presidente responde que para que el Ayuntamiento condene este hecho se debe presentar una iniciativa impulsada a través de los grupos políticos al gobierno municipal.

El representante de EHBildu tiene dos cuestiones. Por un lado, informa que la escultura Dual se encuentra rota por un lado. La secretaría responde que tienen conocimiento de ello y que ha avisado para que la arreglen y puedan reforzar ese lado ya que es la segunda vez que lo rompen. Por otro lado, pregunta qué ha ocurrido con la señalítica que se encontraba

seinaleztapenarekin zer gertatu den galdetu du. Idazkaritzak erantzun du espaloietan egindako obrengatik kendu zela baina laster jarriko dela berriro.

en el cruce de las calles Larramendi y Urbieta. La secretaría contesta que fue retirada por las obras efectuadas en las aceras pero en breve se volverá a colocar.

Hala, beste aztergairik ez denez, 19:30ean bukatutzat jo dute bilera.

No habiendo más temas que tratar, se da por finalizada la reunión a las 19:30 h.

Aktaren egilea: Kontseiluko Idazkariak

Recoge el acta: La Secretaría del Consejo